



Bildu aurretik ondo ezagutu behar dira onddoen ezaugarriak. RAUL BOGAJO / ARCAZKI PRESS



Saskia betetzea ondo dago, baina neurrian. EKAITZ AGIRRE



Sasoi honetan dago perretxiko gehien. IÑAKI GURRUTXACA

Onddoak ez dira jolasa

Euskal Herriko Onddoen gida eskuratu ahal izango da larunbatetik aurrera BERRIArekin

AINARA ARRATIBEL
Donostia

Iraila iristearekin batera Euskal Herriko basoak onddoz betetzen dira. Urriarekin batera, hilabete horretan aurki daitezke onddo mota gehien. Hala, urtetik urtera gero eta gehiago dira haiek jasotzera joatean direnak. Haiei zuzenduta Euskal Herriko onddoen gida osatu du BERRIAk Aranazadi Zientzia elkartearekin batera. Euskal

Herriko 110 perretxiko ezagunen fitxak biltzen dira bertan, eta larunbatetik aurrera izango da eskuragarri. Onddo bakoitzaren fitxa eta argazkiarekin batera, beste hainbat arlo ere jorratzen dira: nola bildu, nola gorde, intoxikazioak... Izan ere, onddo biltzea jasotzetik harago doan zerbait da.

Azken hamarkadan nabarmen egin du gora onddoak jasotzera doazen kopurua. «Moda bihurtu da», dio Jose Manuel Lekuona Aranazadi Zientzia Elkarte kide eta gidaren egileetako batek. Horietako askok inolako ezagutzarik gabe joaten dira, horrek dakartzan ondorioekin. Larriena, pozoitzea da. Gidan, hain zuzen ere, horregatik egiten zaie aipamena onddo po-

zoitsuei. Izan ere, itxura eta usain ederrena duen onddo bat ere pozoitsua izan daiteke. Hala, onddoak biltzean komeni izaten da haien in-txa eta argazkiarekin batera, beste hainbat arlo ere jorratzen dira: nola bildu, nola gorde, intoxikazioak... Izan ere, onddoak aldatuz doaz etengabe, eta irudia une zehatz batekoa da. Fitxan, aldiz, deskribatzen osoa ematen da, normalean.

Zalantza edukiz gero, gutxi batzuk hartu behar dira, eta mikologia elkarte batera jo: «Askok saskiak ekartzen dituzte, eta gero ezin dira jan. Ondo heldutako bi

ale jasotzea nahiko da azteketa egiteko». Horrek kalte handia eragiten dio basoari. Izan ere, nahiz eta jangarriak ez izan, naturari askotariko mesedeak egiten dizkiote onddo horiek: landareei hazten lagundu, atrofitoen usteltzea bultzatu... «Txarrak direla jakin arren, ez dira moztu behar».

Pozoitsuak ez direnak ere neurrian hartu behar dira. Azken urteotan, ordea, sekulako lehia sortu da jendearen artean. Ahalik eta gehien biltzea da kontua: «Jangarria ez den onddorik ezin du basoan geratu da askoren goiburua. Baina ez luke hala izan behar. Politikak izan arren, adibidez, ez ditugu zelai bateko lore guztiak hartzen. Bada, onddoekin berdin». Norbere kontsumorako beharrezkoak direnak baino ez dira hartu behar.

Bestalde, jasoz gero, kontuz egin behar da. Laban bat eraman eta behar bezala moztu. Askok azken zuztarrera arte moztzen dute onddoa, eta ingurua erabat hondatu: «Natura errespetatzen ikasi behar da lehenbizi». Jasotzen direnak, gainera, helduak egon behar dute. Kasu askotan, ordea, ez da hala egiten. Ale oso txikiak hartzen dira: «Horren ondorioz, ez zaie aukerarik ematen berrirajotzeko».

Iaz onddo mordoa izan zen arren, jarrera zentzugabe horien ondorioak antzematen ari dira pixkanaka. «Espezie kopurua ez da murriztu; bai, ordea, mota bakoitzaren baitan dauden ale kopurua». Onddoen fitxak egiteko argazkiak ateratzera joan izan dire-

nean antzeman dute hori: «Lehen sorta ederrak izaten genituen argazkia ateratzeko. Orain ale bakar batekin moldatu behar izaten dugu, askotan».

NEURRIAK. Horren guztiaren aurrean hainbat udalek neurriak hartu dituzte. Irailaren 15etik aurrera, adibidez, Ultzamako ibarrean ordaindu egin beharko da perretxikoak hartzeagatik.

Eskualdeko herritarrek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta horren truke nahi adina perretxiko hartu ahal izango dituzte. Kanpo-koek, berriaz, bi aukera izango dituzte. 10 euro ordainduz gero, gehienez 10 kilo onddo jaso ahal izango dituzte. 5 euroren truke, berriaz, onddoak ez diren beste perretxiko motetako bost kilo hartzeko aukera izango dute. Baimen horiek egun bakarrekoak izango dira. Kontsultak egiteko ordutegia 12:00etatik 14:00etara izango da Kuartelenearekin.

Lekuona legedi bat ezartzearen alde dago: «Ehizarekin edo arrantzarekin egiten duten bezala egin beharko litzateke, eta biltzeko egun zehatz batzuk baino ez jarri». Ez du uste ordaintzearekin ezer konponduko denik: «Are gehiago, ordaindu dutela jakinda basoa berena dela usteko dute, eta astakeria handiagoak egingo dituzte».

Legediak legedi, asko izango dira basoetara onddo bila joango direnak. Zentzuz eta errespetuz jotzea baino ez zaie eskatzen.